



MEMORIA, UNIVERSIDAD DEL PAS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN URREZKO DOMINA MIREN NEKANE BALLUERKA LASARI EMATEKO

Unibertsitatearen domina Gobernu Batzarrek 1983ko apirilaren 21ean hartutako erabakiaren arabera, urrezko domina eman ohi du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, “erakunde honek bere esker ona adierazi nahi dienenean edozein herrialdetako pertsona fisiko edo juridikoei, pribatu zen publikoei, unibertsitateari eskaini dizkioten zerbitzu apartengatik edota zientzien, letren edo arteen alorrean burutu duten lan nabarmengatik”.

EHUko Errektoretzak bultzatu eta sustatu nahi du EHUko Urrezko Domina Miren Nekane Balluerka Lasari ematea, Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia Saileko katedradunari, eta Euskal Herriko Unibertsitateak izandako lehen errektore emakume hautatuari Irakaskuntzan, ikerketan eta, oro har, Euskal Herriko Unibertsitatean izandako ibilbide emankorrenengatik eta hezkuntzaren nahiz zerbitzu publikoaren alde egindako defentsarenengatik, eta gure herrian sustatu dituen balio sozial eta humanoengatik.

Unibertsitatearen oinarri dira formakuntza, irakaskuntza, ikerketa, transferentzia eta kudeaketa eta arlo horiek guztiak egoki baino egokiago bete ditu eta ordezkatzen ditu Nekane Balluerka Lasak. Hainbat aitortza jaso ditu, gainera, egindako lan horiengatik: Frantziako errepublikako gobernuak Chevalier de l’Ordre des Palmes académiques izendatu du (2021), Gizarte eta Giza Zientzien Euskadi (ikerkuntza) saria jaso du (2021) eta Aconcaguako Unibertsitateak (Chile) Honoris Causa Doktore izendatu du (2023), eta Jakiunderen akademiko ere (2023) da.

Berak esana da dena zor diola EHUri (ibid, 2024), baina Euskal Herriko Unibertsitateak ere asko zor dio Balluerka Lasari. Pertsonen eta unibertsitate komunitatearen zaintza landu du bere ikerketetan, aurreiritziak alde batera utzita, metodologia ondo zehaztuz. Hain justu, horretan espezializatu da, metodologiak ondo zehazten, ikerketek ahalik eta emaitza egokienak eman ditzaten.

Lider eredugarria, langilea eta maitatua. Emakume askorentzat erreferente. Ikerkuntzaren Euskadi Saria eman ziotenean, epai-mahaiak beren-beregi adierazi zuen haren "lidergo zientifikorako gaitasun bikaina, gorabidean den ezagutza-eskola baten bultzadarekin; eta jokabide-zientzien metodologiari buruzko bere ikerketak Euskadin izan duen eragin handia" (Irekia, 2022). Horren lekuko EHUKo errektore izan zenean ere ikusi zen. Izan ere, unibertsitatearen muina osatzen duten bi misioetan jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa ematea ahalbidetu zuen. Prestakuntzaren atalean, graduen eta graduondokoen kalitatezko eskaintzaren igoera, titulu bikoitzen eta prestakuntza dualaren aldeko erronka, eta zeharkako gaitasunen bultzada ahalbidetu zituen (Erasmus Mundus masterrak bi izatetik 8 izatera igaro ziren, gradu bikoitzak bitik 12 izatera igaro ziren, eskaintza duala 14 gradutara zabaldu zen, 4 titulazio berri gehitu ziren eta berezko tituluak % 74 hazi ziren). Ikerketan, berriz, talentuari eusteko ikerketarako deialdiak indartzeaz gain, talentua erakartzeko deialdiak ere sustatu zituen, ikerketa ez delako unibertsitatearen jardueraren zutabe bat bakarrik, baizik eta unibertsitatearen nortasunaren oinarrietako bat. Ildo horretan ere, Balluerka errektore zela, Shangaiko rankinean 100 postu igo zen EHU eta munduko 400 unibertsitate onenen arteko taldean sartzea erdietsi zuen. Diferentzia markatzeko lan horretan, lortu zuen lehenengoz kontratatzea bi Nobel saridun: Albert Fert eta George Smoot (EHU, 2020: 4).

Bere mandatuaren amaierak bat egin zuen COVID19aren pandemiarekin eta hori ere aukera bilakatu zuen; irakaskuntzari erantzunez, EHU edonondik plataforma abiatu baitzen, eskola ez-presentzialak bermatu ahal izateko. Jauzi kualitatibo izugarria egin zen, irakasle eta ikasleen erantzun azkarrari eta baliabide telematikoen garapen azkarrari esker. Egoera zail horretan ere lidergoa hartu zuen Balluerka Lasak eta egoerak eskatzen zuen bezala erantzuten jakin zuen Euskal Herriko Unibertsitateak.

Euskal Herriko Unibertsitatearen 45 urteko ibilbidean unibertsitateak hautatu dituen errektoreen artean bera izan zen lehenengo emakume errektorea eta bere ikuspegi feministak arrastoa utzi du. Berdintasunarekin konprometitutako gizonezkoekin aliantzak egin behar zirela aldarrikatu zuen, horretarako guneak sortzeko benetako berdintasunaren bidean. Beharrezko jo izan ditu "esparru publikoan, toki handiagoa eskainiko diona sentimenduen azaleratzeari. Horixe genuke egiazko iraultza lasaia, iraultza balioen ezarpenean eta iraultza ezarpen hori egiteko moduetan beretan" (EHU, 2018). Konpromiso horretatik sustatu zen bere mandatupean EHUn indarkeria matxistaren aurkako protokoloa berritzea eta ez diskriminazioaren aldeko urrats gisa, esaterako, genero ez bitarra hautatzeko aukera gehitzea ikasleen aukeretan.



Ezin aipatu gabe utzi memoria honetan euskararekiko konpromiso eta inplikazioa. Ez alferrik bera errektore zela aitortu zitzaion urrezko domina hauxe berau Euskaltzaindiari, "urtez urte euskara arautu eta modernizatzeko egindako lanagatik".

Eta horregatik guztiagatik, Nekane Balluerka Lasak, EHUren errektore izandakoak, EHUren eta, oro har, ikerketaren eta kalitatearen aldeko egindako lanagatik merezia du EHUren Urrezko Domina.

Leioa, 2025eko uztailak 10

Datu pertsonalak

Nekane Balluerka Lasa (Ordizia, Gipuzkoa, 1966ko abenduaren 5a). Psikologian lizentziaduna eta EHUko katedraduna Portaera Zientzien Metodologian. EHUko errektorea 2017-2021era bitartean. [Euskadi Ikerkuntza Saria](#) jaso zuen 2021ean. Ikertzaile moduan ekarpen nabarmenak egin baititu Diseinuen eta Datuen Analisiaren arloan, Gizarte eta Osasun Zientzietan ikerketak burutzeko, bai eta neurketa-tresnak (hala nola testak, galdesortak eta eskalak) kultura artean egokitzeko metodologiaren arloan ere.